

# **URDAI-SALTZERA**

**Lekuona Zarrak**

Urdai-saltzera noa  
ardan-errire (1);  
jende guztie daukat  
neri begire  
                                  jire ta bire;  
joan bearra daukat  
al dan tokire.

Mañeru'ko arakiñe,  
gizon jakiñe;  
laister ezagutu du  
ez dala fiñe.

Au! nere miñe!!

«Erostun bat eidazu,  
Ama Birjiñe!»

Mañeru'n kargatu ta  
Estella'rako.  
Atso bat an zegoan  
kalean pronto.

Bidean topo:

—*A cómo vende la arroba?*

*diga usted loco?*

—*Dieciocho pesetas.*

—*Baje un poco.*

Dirua noizko?

—Dirua bearko det  
pisa orduko.

---

(1) Ardan-erri = «Tierra de viñedos».

Kontuak egin, eta  
ni ostatura.  
Kontu oker genuela  
ba nuen duda...

Atsua eldu da:

—Kontu oker genuela;  
nik ari burla...  
Nola engaña lezaken  
eruaak zurra?

—Orratx, Etxekoandrea:  
aurtengo urdaie.  
Ondroso para zazu  
orrekin maie,  
ba dezu gaie.  
Paris'en ageri da  
orren usaie.  
Salduaz kontentu da  
gaur manda-zaie.

Kanta, Erasun'en bildua da. Bañan Mañeru'ko pasadizu bat konttatzen du. Estella-lurrekoa. Estella-lurreko Euskeraren egoerako «testigu» izan diteke.

Erasun'en , orain irurogei urte, Mariezkurrena'ko etxeko-jaunak bere aurrai entretenigarri kantatzen zien. Eta Maritxu etxeko alabak orduan ikasi eta guk gaur ezaguerazi aal izan degu.

Kanta irrigarria da, satirikoa... gure artean beti ere ain gustukoa izan dan jenerokoa. Nolanai dala, gure Aingeru Irigarai'ren gusto ta arikoa izan zitekeana. Olako nafar-kutsuko bitxi-billa beti ere saiatu izan bait zan, bere bizi guztian. Bestelakoak ere bai; bañan nafar-kutsukoak batez ere. Bañan ez ezkutuan eukitzeko, publikamenetan bir-zabaltzeko baizik, bere proselitismo

ederrean: Guk gaur bere musika-ta guzi emateko suertea degu, gure Erasun'go eredia. Gauzaren osogarri eta apaingarri (1).

Irri-kantak oso gure gustokoak izan dira beti.

Xenpelar'ek ere era ortan - irr-eran - egin zuan bere «Betroiarena». Eta Xenpelar'en antzera, Bilintx'ek ere bere «Zaldi zuriarena».

Cure urdai-saltzallearena ere irri-kanta da. Bañan beste bi aien aldean, beste jite bat du.

Xenpelar'ek eta Bilintx'ek gauzaren iruditik, itxuratik, imajiñatik artzen dute beren irri-gaia; begietatik sartzen zaigun imajiñatik, Erasun'go kandak, ordea, ez begietatik, sudurretatik sartzen zaigun usaietik, kiratsetik; urdai-erustelduaren kiratsetik.

Bañan gure Erasun'goa ez bait da, bide ortatik dabillen bakarra edo lenengoa. Otsalde famatuak ere kantatu bait zion, ez urdai ustelduaren, bañan bai zenbait ganadu argalen usai sunda nabarmenari. Eta ez Otxaldek bakarrik; baita beste bi bertsolari «anonimok» ere ederki asko.

Ikusi dezagun, gauzaren argigarri eredu bat edo beste.

Onela dio Xenpelar'ek bere «Betroiarenean»:

«Burruntziya dirudi

aren bizkarrak»

«Krizellua dirudi

aren kokotzak»

---

(1) Erasun'go Mariezkurrene'ko nagusiak kantatzen zuan doñua, doñu ezaguna da. Bertsolari anonomoaren «Ikazketako mandoa»ren doñu bera. Gure artean Gipuzkoa'n Oyarzungo «Ardotx»ek, lenengo Karlitatean kantatutako «Villaverde»koen bitartez ezagunagoa. Ola bait zion Ardotx'en bertso aietako batek:

Ango sukak-bazterrak/ikustekoak:  
 labatzik bat-ere ez/falta auspoak;  
 alki zendoak,  
 iru edo lau arri/kintalekoak;  
 ango zokoak,  
 ezkondu ezkeroztik/garbitzekoak (biz).

Eta Bilintx'ek, bere «Zaldi zuriyarenean»:  
 «Kartoyakin egiña  
 dala dirudi»

*Dirudi, dirudi, dirudi...* Begi-kontu zerbait.

Gure Erasun'goak, berriz, beste ola dio:  
 «Paris'en ageri da  
 aren USAIE».

Otxalde'k onela dio bere «Iruña'ko ferietan» (1) erosi duan beorraren usaiari buruz:

«Beliak eta arranuak  
 bortatik daude guardia;  
 hil azu, beraz, argia,  
 hunat ez diton abia».

Eta anonimoetan batek, bere «Ikazketako maondoa» (2) dalakoan:  
 «Haragi-ustel-urrin bat  
 ba du bereki.»

Eta beste anonimoak ere, bere «Ixxkerraren zamarialen, ustel-urrin orri buruz:

«Belek eta arranuek,  
 bidian naie atakatu.»

Guzti ori, kantaren gaiari buruz.

Ikustagun orain zerbait geiago, literatur-formari buruz; kantaren umoreari buruz batez ere kantak. Umorezko troxu polit askoak bai bait ditu.

Nolanai dala, grazia aundia ematen dio kantari, dana auto-biografian egiña izanak: egoera farragarriak auto-biografian; berari gertatuak bezela

---

(1) Ikus: A. Onaindia: «Milla euskal alerki eder» — 513 or.

2) Ikus: A. Onaindia: «Milla euskal olerki edir» — 587 seg. or.

konta. Salbo-ta, gure Kazkazuri'k egin zuan bezela: edo-ta Bilintx'ek bere «Potajiarena»n egin zuan bezela.

«Urdai-saltzera noa  
ardan-errire.»

Ortaz gañera bestelako gauza bitxiak ere bai bait ditu, adibidez, aldian beingo «oin erren» *pie quebrado*' ak alegia, beren uste-gabeko sorpresa politakin. Onako bertso au, adibidez:

«Mañeru'ko arakiñe,  
gizon jakiñe:  
laister ezagutu du  
ez dala fine..

Au nere miñe!

Erostun bat eidazu,  
Ama Birjiñe!!

Bertsolariaren «erretaulika» ta «kalamatrika gutxiko» pentsamenaren ritmoa, oso bizi ageria bait da onako bertso ontan: elipsis askodun troxua:

«Kontuak egin, eta  
ni ostatura.  
Kontu oker genuela  
ba nuen duda...

Atsua eldu da:

«Kontua oker genuela;  
nik ari burla;  
nola engaña lezaken  
zoruak zurra? !»

Dena-den, Nafar-literaturako troxu interesgarri bat, gure Aingeru Irigarai-  
'ren gogoangarri.

Oyarzun'en 1984-gn Ekaiñaren 25ean.